

Azken zazpi egunak bizitasun handikoak izan dira Komite Internazionalistak erakunderako. “Kapitalismoaren aurrean...Herrien arteko ideien kontrabandoa” jardunaldiak gauza ugari irakatzi dizkigute. Alde batetik jardunaldi hauetan argi geratu da interes handia dagiela kapitalismoaren aurrean dauden alternatibak ezagutzeko. Jende ugari pasatu da Zirika lokalatik eta parte hartu du hitzaldietan galderak eta iritziak emanez. Beste aldetik, hitzaldiak ematera etorri diren pertsonekin kontrabandoko ideiak eta barreak elkartrukatzeko aukera izan dugu eta honek elkarterako eta bertan gauden pertsonentzako aberasteko aukera ezinobea izan da.

Jardunaldiak hasiera polita izan zuten Nekane Juradoren hitzaldiarekin Ekainaren 3an.Nekanek ekonomiaren inguruko oroimen historiko bat egin zuen eta auzolana alternatiba bezala aldarrikatu zuen. Ekainaren 4an Gorka pinillosen hitzaldia izan genuen. Gorkak Kooperatiba integralaren alternatiba aurkeztu zuen. Ekainaren 5ean Dario Azeliniren bideokonferentzia , 6an Lola Alvarez SAT sindikatuko kidearen hitzaldia eta Somontes lur eremu okupatua protagonistak izan ziren eta Ekainaren 7an Pablo Iglesias “La tuerka” programa aurkezlearen hitzaldia ikusteko ehun pertsona elkartu ziren. Guztiak beraien alternatibak eta ideiak aditzera eman zituzten eta guztietatik zerbait ikasteko aukera izan genuen. Jardunaldiak ekimenez beteriko asteburu batekin amaitu ziren: Elikadura burujabetza tailerra EHNEren eskutik, Bazkari herrikoi ekologikoa eta lokala, Festa Kubatar herraldoia Zazpi katun eta Potemkin zineforumean “Garai modernoak” Chaplin handiaren filmarekin gozatzeko aukera.

Hemendik aurrera dugun erronka ikasi duguna martxan jartzea da.

{phocagallery view=category|categoryid=16|limitstart=0|limitcount=0}